



ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO

SAILA

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y

ASUNTOS SOCIALES

Viceconsejería de Asuntos Sociales

Dirección de Servicios Sociales

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IJITO HERRIAREN ERABATEKO
SUSTAPENERAKO ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO KONTSEILUA**2011KO AZAROAREN 14KO BILERAREN AKTA****Dei-egilea:****presidentea:****Gemma Zabaleta andrea.** Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua.**Bertaratuak:****presidenteordea:****Manuel Vizarraga jauna.** Kalé Dor Kayikó Elkarte.**Alfonso Gurpegui jauna.** Gizarte Gaietako sailburuordea.**Iñaki Múgica jauna.** Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.**Eduardo Pérez jauna.** Hezkuntza Saila.**Ignacio Rodríguez jauna.** Kultura Saila.**Ana Isabel García Maté andrea.** Herrizaingo Saila.**Ignacio de la Puerta jauna.** Etxebizitza Saila.**Elena Irusta andrea.** Osasun Saila.**Arantxa Elizondo andrea.** EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea.**Juan Luis Beltrán de Guevara jauna.** Arabako Foru Aldundia.**Ignacio Iragarri jauna.** Gipuzkoako Foru Aldundia.**Emilia Cortés andrea.** Chanelamos Adikerar Elkarte.**Bartolomé Jiménez jauna.** Gao Lacho Drom Elkarte.**Olga Borja andrea.** Gao Lacho Drom Elkarte.**Pascual Borja jauna.** Gao Lacho Drom Elkarte.**Eduardo Motos jauna.** Barakaldoko Ijitoen Elkarte.**Valentín Jiménez jauna.** Iniciativa Gitana Elkarte.**Bartolomé Jiménez jauna.** Iniciativa Gitana Elkarte.**Óscar Vizarraga jauna.** Kalé Dor Kayikó Elkarte.**Juan Carlos Jiménez jauna.** Kamelamos Adikerar Elkarte.**Julia Jiménez andrea.** Romí Bidean Elkarte.**Victoria Jiménez andrea.** Sim Romí Elkarte.**Soraya Motos andrea.** Sim Romí Elkarte.**Conchi Franco andrea.** Cáritas Gipuzkoa.**Begoña Lasa andrea.** Adarra Kolektibo Pedagogikoa.**Nuria de la Cruz andrea.** Secretariado Gitano Fundazioa**Ángel Manero jauna.** Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza. Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa.**Javier Pérez jauna.** Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa.**Ezin etorria adierazi dutenak:****Javier Ruiz jauna.** Enplegu Saila.**Xabier Legarreta jauna.** Bizkaiko Foru Aldundia.**Rafael Giménez jauna.** Gipuzkoaren Etorbizunerako Ijito Elkarte.**Mónica Guitera andrea.** Gipuzkoako Gizarte Langileen Elkargoa, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.

Eguna: 2011ko azaroaren 14a

Ordua: goizeko 11:00etan

Lekua: 6. aretoa – Lakua. Eusko Jaurlaritza (Gasteiz)

Gai-zerrenda:

1. Aurreko bileraren akta onartzea (2010/07/14).
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua: erakunde-ordezkaritzaren eguneratzea eta osoko bilkuren tarteko jarduerak.
3. Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plana: amaieraren aurreikuspena eta ebaluazioa.
4. Esku-hartzea EAEn bizi diren Europako erkidegoko jatorria duten ijitoen asentamenduetan: Arartekoaren 3/2011 gomendio orokorra eta martxan dauden jardunak.
5. Informazio interesgarri gehiago.
6. Galde-eskeak.

Bileraren garapena:

Alfonso Gurpeguik bertaratuei ongietorria eginez eman dio hasiera bilerari eta ondoren, aurkezpen-txanda bat egin da.

1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.

Kontseiluaren azken osoko bilkurari dagokion akta (2010/07/14) onartu aurretik Kamelamos Adiquerar elkarteko presidente eta fundatzaile Jose Ramón Jiménez, *Monchoren* († 2010.11.20) oroimenari eta Gao Lacho Drom elkartearen sustatzaile eta alma mater Julia Chávarriren († 05.02.2011) oroimenari minutu batzuk eskaini zaizkio. Alfonso Gurpeguik eta bereziki, Manuel Vizarragak, Kontseiluaren presidenteorde izanik eta bion ibilbidea ondo ezagutzen duenez, bi pertsona horiek Ijito Herriarekin izan duten konpromiso pertsonala eta oraindik egiteke dagoen lanaren erreferente gisa duten balioa goraiatu dituzte.

Adierazitakoari besterik erantsi gabe, akta onartu da.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua: erakunde-ordezkaritzaren eguneratzea eta osoko bilkuren tarteko jarduerak.

Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoak azken foru- eta udal-hauteskundeak direla-eta izandako aldaketen ondoriozko erakunde-ordezkaritzaren eguneratzearen berri eman du baita horren ondoriozko osakeraren berri ere, hiru Foru Aldundiak ordezkatuko dituzten pertsonen (titular edo ordezko gisa) dagokionez, kasu guztietan Gizarte Politikako, Gizarte Gaietako, Gizarteratzeko edota Berdintasuneko gaietan erantzukizuna dutenak.

EUDELe izendatu beharreko ordezkaritzari dagokionez –lau kide– jakinarazi da oraindik ez dela komunikazio formala iritsi baina aurreratu da Santurtzi eta Gasteiz izendatzea aurreikusten dela.

Kontseiluaren osoko bilkuren tarteko jarduerari dagokionez, Óscar Vizarragak osoko bilkuraren deialdiarekin batera ijito-elkarteen batzordeak garatutako jarduerari buruz igorritako dokumentuaren edukia laburtu du.

Begoña Lasak adierazi du badirudiela balizko federazio bat edo antzekoren bat sortzeari behar bezala landu gabeko bestelako lehentasunei baino denbora gehiago eskaini zaiola. Pascualen iritziz horiek ez dira elkarren kontra dauden gaiak, premiazko gaien, gai garrantzitsuen eta gai estrategikoen artean bereizi beharra dago eta nolnahi ere, federazioaren gaia batzordearen agendatik atera egin da bere funtzionamendua ez oztopatzeko.

Alfonso Gurpeguik uste du elkarteak biltzen dituen federazio edo antzekoren bat baliagarria izan daitekeela kohesiorako eta parte hartzeko balio duelako baina nolana ere, elkarteek hartu behar dutela batzeko edo ez batzeko erabakia.

Ondoren Idazkaritzak alde aurretik osoko bilkurari bidalitako dokumentuaren –Batzorde Iraunkorrek garatutako jardueraren ingurukoaren– azalpen laburra egin du, bereziki Planaren martxari buruzko balioespenean sakonduz.

Bartolomé Jiménez kezkatuta agertu da Sail desberdinen konpromiso eskasagatik eta bereziki, elkarteek beren proiektuak garatzeko izaten dituzten finantzaketa-arazoengatik. Kontuan hartzen ez den Aholkularitza Kontseilu batean parte hartzeak duen balioa zalantzan jarri du eta finantzaketa-arazoen adibide gisa aipatu du berak Euskadiko Ijito Herriaren Eguna azaroaren 16an ospatzeko eskatutako laguntza ekonomikoa ukatu izana. Bere ustez, horrek guztiak borondate politikoaren gabezia erakusten du.

Eduardo Motosek bere elkartearen kasua aurkeztu du abandonu instituzionalaren adibide gisa eta kexa azaldu du bere elkartearen aspalditik lan garrantzitsua garatzen ari bada ere, berak egindako diru-laguntzarako eskaerak erantzun positiborik ez jasotzeagatik.

Alfonso Gurpeguik zehaztu du Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Planak eragile eta maila instituzional desberdinei dagozkien konpromisoak eskatzen dituela, baita legegintzaldi batean amaitu daitezkeen eta amaitu ezin daitezkeen jardunak ere. Nolanahi ere, Plana ibilbide-orri gisa Kontseiluaren zerbitzura dagoen tresna da eta orain da II. Plana ebaluatzeko eta III. Plana egitea egokia den edo ez balioesteko unea.

Bestalde, Alfonso Gurpeguik gaineratu zuen diru-laguntzek beren arau-esparru propioa dutela eta esparru hori aplikatzearen ondorioz aurkeztutako eskaerei erantzun positiboa nahiz negatiboa eman daitekeela eskaerei emandako balioespenearen arabera. Nolanahi ere, gogorarazi du diru-laguntzak arautzen dituen araudiak lurraldez gairik jardunei ematen diela lehentasuna lurraldeen araberrako eskumen-banaketaekin bat etorriz; izan ere, horri jarraiki espero daiteke Eusko Jaurlaritzak bere maila berean antolatzen den gizarte-ekimenari lehentasuna ematea, EAE osoari dagokiona hain zuzen ere.

Bartolomé Jiménezek onartu du Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak beren eskumen-mailan izan duten zeregin positiboa.

Óscar Vizarragak berriro salatu du erakunde publikoek Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Planaren garapenean izan duten konpromiso eskasa eta gogorarazi du 2004. urtetik aurrera egin den etengabeko eskaera Kontseiluak aurrekontu propioa izan dezan. Bestalde, bere ezinegona adierazi du elkarteak sistemaren ohiko funtzionamendura etengabe lotzeagatik, laguntza-deialdiei dagokienez nahiz erantzule politikoekiko elkarrizketei dagokienez. Ildo horretan, ijito-elkarteek Kontseiluko presidenteordearekin eduki nahi izan zuten maila goreneko elkarrizketa-txanda aipatu du, horren erantzun gisa elkarteak ‘egunero hitz egiten duten pertsonekin’ hitz egitera bideratu baitziren. Aurretik esandakoari normalean erakunde-ordezkarik gorenak osoko bilkuretara ez direla bertaratzen erantzen dionez, bere ondorioa da benetan Kontseiluaren eta Planaren martxarekin konprometitutakoak gizarte-erakundeak soilik direla.

Azkenik, III. Plan baten alde azaldu da, betiere erakundearen konpromiso handiagoa eskatzen bada. Elkarteek dagokienez, horrelako eronkari aurre egiteko batu egin behar dutela uste du, nahiz eta oraingoz ez duten hori lortzeko formularik aurkitu.

Pascual Borjak konpromiso-maila desberdinak daudela onartu du eta Arabako Foru Aldundiak eskainitako arreta eskertu du. Adierazitakoaren ildotik, III. Plan baten premia dagoela berretsi du, betiere konpromiso sendoarekin ekiten bazaio. Bere ustez, ijitoek eta ijito-komunitatearekin lan egiten duten elkarteek aurkitzen dituzten mugak (besteak beste, administrazio-izapideak, lurraldeaz gaineko izaerak agintzea eta zerbitzu unibertsalen planteamendua aipatu ditu) erraz gaindi daitezke borondate onarekin.

Begoña Lasak funtsezko elementu gisa lidergo-falta eta konpromiso instituzional falta aipatu ditu. Gainera uste du osoko bilkuren artean igarotako denborak zaildu egin duela Planean aurreikusitako jardunei Kontseiluaren esparruan bultzada bat ematea.

Balizko III. Plan bati dagokionez, Plan berri bat idatzi beharrean *'estreinatu gabeko'* II. Planari jarraitutasuna ematearen alde agertu da. Betiere, Plan hori garatzeko bermeak baldin badaude.

Alfonso Gurpeguik azken osoko bilkuratik hainbeste denbora igarotzeagatik egindako kritika onartu du. Kontseiluan parte hartzeari dagokionez, azpimarratu du Dekretuan parte hartzea aurreikusitako ia erakunde-eragile guztiak bilera honetara bertaratu direla eta hori dela garrantzitsua, unean-unean hasieran aurreikusitako pertsonak bertaratu diren edo ez baino gehiago.

Bestalde, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Planak Kontseiluaren eta hari lotutako eragile guztien jarduna bideratuko duen ibilbide-orri gisa duen balioa berretsi du. Bi erreferenteak, Kontseiluak eta Planak, berezko gisa hartzen ditu egungo Gizarte Gaietako Sailak aurretik sortuak izatea kontuan izan gabe eta berdin gertatzen da Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearekin eta Saileko egungo arduradunak Sailera iritsi direnean aurkitu dituzten beste partaidetza-organo batzuekin ere. Alde batetik, Kontseiluari babesa ematea Sailaren funtsezko ekintza-ildo da eta bestetik, Planean aurreikusitako jardunei dagokienez, diru-laguntzen formularen bidez Planaren helburuekin bat datozen jardunen garapena bultzatzen da nahiz eta gizarte-zerbitzuak ematearen inguruko jardunen erantzukizuna Administrazio Publikoaren beste instantziei dagokien.

Azkenik, elkarteek adierazitako ezinegona jasoz, Planaren ebaluazio xehatu bat egitea proposatu du, hain zuzen ere lehengo Planarekin jarraitzearen edo balizko hurrengo osoko bilkuran (urtarrilaren erdialdean edo amaieran egin daiteke) beste batez ordezkatzearen inguruko erabakia hartzea ahalbidetzeko.

Begoña Lasak proposatu du ebaluazio orokor arinago bat egitea, hau da, Kontseiluan parte hartzen duten eragile bakoitzak hamabost egun inguruko epean barne-ebaluazio bat egitea, ebaluazio horretatik abiatuz, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Planak izan duen garapenaren eta oraindik dituen potentzialtasunen inguruko irakurketa orokorra egiteko. Helburua da Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Planean adierazitako eragile bakoitzak berrikustea zein neurritan bete ote duen aurreikusitakoa eta zein neurritan espero den etorkizunean betetzea. Era berean, gaur egun Batzorde Iraunkorrean parte hartzen ez dutenek bertan parte hartzea eskatu du.

Óscar Vizarragari erantzunez, Alfonso Gurpeguik berretsi du urtarrilean izango dela hurrengo osoko bilkura, hain zuzen ere planaren jarraitutasunari edo plan hori plan berri batez ordezteari buruzko erabakia hartzeko. Horretarako, ebaluazio orokor arinagoa egingo da Begoña Lasak egindako planteamenduari (bertaratutako gainerakoek ez diote eragozpenik jarri) bat etorritz.

Era berean, Óscar Vizarragak Kontseilu honek Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan duen ordezkari-formula berrikusteko premia planteatu du, hitza eta botoa izateko eta horrela hartzen diren erabakietan eragiteko. Horri lotuta ijitoen hizkuntzaren onarpenaren bitartez ijitoen kultura-nortasuna onartzeko eskatu du eta Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plana romani hizkuntzan ez argitaratzea sentitzen duela adierazi du.

Bartolomé Jiménezek bat egin du adierazitako ondoezarekin; izan ere, beste kolektibo batzuek ordezkari dute hitza eta botoarekin eta ijitoak ez, eta horren ondorioz eragiteko ahalmena galtzen da.

Aurrekoarekin lotuta, bi Kontseiluetako idazkari Angel Manerok adierazi du desberdintasuna soilik formala dela Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan egin daitezkeen ekarpenak kontuan hartzen direlako eta beste edozein kidek egiten dituenak bezala jasotzen direlako.

Alfonso Gurpeguik adierazi du hizkuntzaren gaia ebaluazioan bil daitekeela. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan parte hartzeari dagokionez zehaztu du gaur egun, bereziki sektore-eremuak (zaharrak, haurrak, bazterketa eta abar) ordezkatzeari buruzko aipamena egiten duen arau erregulatzaila aldatzea beharrezkoa litzatekeela. Pascual Borjak gai horri buruz galdetutakoa erantzunez esan du federazioek parte har dezaketela eremu edo sektore baten ordezkari gisa baina ez federazioak izateagatik soilik. Nolanahi ere, Kontseilu honetako ordezkarien ekarpenek beste edozein ordezkariaren ekarpenek adina balio dutela eta beti horrela izan dutela azpimarratu du.

Azkenik, planaren aurreikusitako ebaluazioa gauzatzeko eskatu du horren ondoriozko jardun-proposamenak formulatu ahal izateko.

Elkarteek adierazitako ondoezaren erantzun gisa Natxo Rodríguez ados dago Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Planaren ebaluazio arin bat egitearekin.

Begoña Lasak berriro egin du Kontseiluko beste eragileak Batzorde Iraunkorrera batzeko gonbidapena. Horri erantzunez, Ana Isabel García Maték proposatu du zuzenean Herrizaingo Saila formalki gonbidatzea Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritzaren bitartez (bera Zuzendaritza horri atxikita dago). Era berean, Ignacio Iragorrik planteatu du gonbidapena Gipuzkoako Foru Aldundiari egitea Eskubide Ekonomikoen, Haurren babesaren, Gizarteratzearen eta Enpleguaren Zuzendaritzaren bitartez (bera Zuzendaritza horretan kokatuta dago).

Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Planaren balioespenari, ebaluazioa egiteko aurreikuspenari eta horri buruzko etorkizuneko erabakia dagokienez bilerak izan duen garapenarekin gai-zerrendaren 3. puntuan biltzen dena landu denez, hurrengo puntuari ekitea erabaki da.

4. *Esku-hartzea EAEn bizi diren Europako erkidegoko jatorria duten ijitoen asentamenduetan: Arartekoaren 3/2011 gomendio orokorra eta martxan dauden jardunak.*

Idazkaritzak atera du gaia Kontseiluaren aurreko osoko bilkuretan eta Batzorde Iraunkorrean landu den gaia dela aipatuz; Batzorde Iraunkorrean Europako erkidegoko jatorria duten ijitoen esku-hartzean soilik oinarritutako lan-batzorde bat eratzeko ideia atzera bota zen. Dena den, Arartekoaren gomendio orokorrean Gizarte Gaietako Saila eta Kontseiluari lotutako zenbait eragile aipatzen direnez, berriro gaiari ekitea planteatu da.

Ildo horretan, Romí Bidean Elkartek Cáritasen laguntzarekin Gipuzkoako Lurralde Historikoan martxan jarritako proiektuaren berri eman da, hain zuzen Hirugarren Sektoreak gizarte-arloko esku-hartzea bultzatzeko Gizarte Gaietako Sailaren urteroko diru-laguntzen deialdiaren esparruan.

Conchi Francok orain arte egindako urratsen azaleko laburpen bat egin du honako hauek bilduz: Gipuzkoako asentamenduen kokapena, jatorrizko herriei buruzko erreferentziak eta egindako joan-etorriak, gizarte-zerbitzuekin eta erabiltzaileekin izandako harremanak, Udaltzaingoaren zeregina, Udal Administrazio desberdinek emandako erantzun oso desberdinak, dagokigun asentamenduetan dagoen osasun-arloko babesgabetasuna eta bertan bizi diren pertsonen eskaera nagusiak. Errealitate horri hurbiltzeko lehen fasea amaitu ondoren errealitate horri erantzuna emateko jardun egokiak diseinatzen laguntzeko partekatu ahal izango den informazioaren aurrerapen bat besterik ez da informazio hau.

Bartolomé Jiménezek eskatu du pertsona horien premiak kontuan hartzeko eta pertsona horiek merezi duten errespetuarekin eta gure jardunaren oinarri izan behar duen berdintasunaren eta Giza Eskubideen ikuspegiarekin lehenbailehen gaiari ekiteko. Bere ustez, Euskadiko ijitoek *'ikusita eta pairatu ditugun'* egoeren antzekoak dira.

Segurtasun-indarrek (Udaltzainak edo Ertzaintza bera) zenbaitetan izaten duten zeregin garrantzitsuari egindako aipamenei dagokienez, Ana Isabel García Maték eskatu du horiei ere gainerako guztiei onartzen zaien errugabetasun-presuntzio bera onartzeko; izan ere, uste du segurtasun-indarren jardun bakoitza zehatz-mehatz ezagutu gabe haien esku-hartzea modu orokorrean zalantzan jartzea justifikatzen duen arrazoirik ez dagoela. Gaineratu du badaudela desegokitzat jotzen diren jardun polizia-laguntza salatzeko aurreikusitako formulak eta formula horiek erabiltzeko gonbitea egin du.

5. *Informazio interesgarri gehiago.*

Alfonso Gurpeguik jakinarazi du data horretan EHAAn argitaratu dela gizarte-arloko esku-hartzearen eremuko hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren urteko deialdia.

Iñaki Múgicak gaineratu du hiru Lurralde Historikoetan informazio-saioak egingo direla eta ondoren, aurkeztuko diren proposamenen balioespenarako oinarritzotzat jotzen diren alderdien azaleko berrikuspina egin du.

Euskadiko Ijito Herriaren Eguna azaroaren 16an ospatzeko ijitoen elkarteek aurreikusitako ekintzei dagokienez, Oscar Vizarragak bere elkarteak Bilbon antolatu dituen jardueren (batez ere izaera ludiko-kulturalekoak) berri eman du; berdina egin du Pascual Borjak, eta besteak beste, lurraldeko diputatu nagusiak emango dien harrera aipatu du. Ekitaldi horiei dagokien informazioa osatzeko, lehenik Begoña Lasak esan du ikastetxe askotan garatzen direla modu batean edo bestean egun horren inguruko jarduerak eta ondoren, Julia Jiménezek aipatu du bere elkarteko emakumeek egindako ijito-sukaldaritzako errezeta-bilduma bat aurkeztu dela.

Manuel Vizarragak bertaratutakoen parte-hartzea eskertu du, edukietan bat etortzearen garrantzia azpimarratu du, denok *'ijito-herriarentzat onena nahi dugulako'* eta azkenik, Kontseiluaren sorreran zegoen lankidetzaz-espirituari bizirik eusteko gonbidapena egin du.

Alfonso Gurpegui lankidetzaz-espiritu horri eustearekin bat dator. Galde-eskeen idatz-zatian bertaratutakoek bestelako alderdirik aipatu ez dutenez, Alfonso Gurpeguik bilera amaitutzat eman du 12:20ean.

IDAZKARIA

O.E.
Jarduneko LEHENDAKARIA